



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Investigación

EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2023-2026 denboraldirako ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2023ko ekainaren 20ko aginduaren bidez deitutako Ikerketa Espezifikoko dirulaguntza berriak ebazten dituen.

Agindu horren 31. artikulua arabera, laguntza berriak, Ikerketa espezifikoan, ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakarraren bidez gauzatuko da, hautapen-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Berriazko aholku batzordeen ebaluazioa eta hautapen-batzordeak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen den onuradunari ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntza eta dagokion ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea 2023-2026 denboraldirako.

Bigarrena.- Laguntza horiek jasotzeko zenbatekoa, iraupena eta gainerako baldintzak 2023ko ekainaren 20ko Aginduan xedatutakoak izango dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, bere aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dute interesadunek, Hezkuntza sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da, ebazpen hau www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea